



Aia

Eneko Balerdik Usurbilgo "Sagastiak Loretan" zikloan parte hartuko du

Miriam 2014-05-09 11:47 AIA

Sagarrondoan loraldiaren omenez egiten den festan dantza saioa eskainiko du aiarrak maiatzaren 10ean



 Ikusi handiago |  Argazki originala

AIA

- ✦ Errotuta dagoen etxeko igoera
- ✦ Elkanoren zortzi agiri topatu dituzte Aian
- ✦ Gotzon Iruretagoiena: "Kanpoko jende hori lasterketaren parte da, barruan daude"
- ✦ Amilibia irabazle Pagoetako lasterketan
- ✦ Herriartekotik kanporatu dute Aia
- ✦ Kamiñoko idi pareak irabazi du Bizi Iturri saria
- ✦ Herri irteera Guadalupera
- ✦ Herriartekotik esku hutsik itzuli ziren aiarrak
- ✦ Aiak parte hartuko du herriartekoan
- ✦ Parke Naturaletik igaroko da Mendi Lasterketa
- ✦ Asentzio ferian parte hartzeko deialdia bertako baserritar eta ekoizleei
- ✦ Landare berezien 14. azoka
- ✦ Herritarren esku dago muraleko marrazkia
- ✦ Landareak baino askoz gehiago
- ✦ Bi peoi kontratatuko ditu Udalak udarako

Sagardoaren lurretan, sagarrondoak dira bizitza eman eta sagardotegiei eragiten dien indarra; horregatik, horiek loratzen ikustea festa bat da. Sagastien loraldiari gorazarre egiteko, bigarren urtez, *Sagastiak Loretan* ekimena antolatu dute Usurbilen hainbat eragilek elkarlanean.

Maiatzaren 3an hasi ziren programako ekitaldiak, eta ekainaren 1era arte egingo dira. Horien artean, bihar, maiatzaren 10ean, Eneko Balerdik dantza saioa eskainiko du berreskuratutako XVI: mendeko Aginagako Sariaaundi dolare baserriaren bisita gidatuaren barruan. Bisita 17:30etan hasiko da.

Sagarra dantzan

Sareaaundin egiten zen lanaren baitan egingo du dantza saioa Balerdik, baserrirako bisitaren zati bat izanik. Baserriaren egiturak zein funtzio betetzen zituen azaldu eta, ondoren, dantza saioa eta musika saioa eskainiko dira. Dantza saio hori Sagarra Dantzan proiektuaren lehen atala izango da.

Proiektuak bere gain hartuko ditu hainbat dantza saio eta, guztiak, leku ezberdinetan izango dira. Leku horietara egokitu beharko du Balerdik, izan ere, lekura egokitutako artea izango da Sagarra dantzan egitasmoaren berezitasuna. Ondorioz, leku bakoitzaren berezitasunak zein diren aztertu eta bere egin ondoren, espazio horietan dantzatu beharko du aiarrak.

Leku bakoitzaren inguruko dantza saioak egin beharko dituenek, inspirazioa espazio konkretu horietan bilatu du. Biharko kasuan, Sareaaundi baserriaren inguruan dokumentatu da, batez ere, egin den lanean eta baserriaren egiturari. Inspirazio iturria hori izan da Balerdirentzat, eta musika eta dantza, guztia, berak ekoiztu du.

Biharkoa lehendabizikoa izango da, urte osoko egitaraua baitauka Sagarra dantzan proiektuak. Lehen alea, biharkoa izango da eta gogotsu dago aiarra.

ZABALDU ARTIKULUA:  

Erantzun

Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu. **Sartu komunitatera!**

Erabiltzaile izena

Pasahitza

Sartu »» [Alta eman edo pasahitza berreskuratu](#)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**Jarraitu
karkara.eus**



Karkara aldizkaria

Eusko Gudari kalea, 26 - 20810 Orio (Gipuzkoa)

e-posta - Tfnoa: 943 83 15 27

Ohar legala - Arauak

[Codesyntaxek](#) garatua

